

## Martutene

### Sinadura bilketak

Larunbatean eta igandean, hilak 14 eta 15. Sarroeta Auzo Elkarateak mahaia jarriko du auzoan sinadurak biltzeko. Batetik, erakundeetako Uru-mea Martutenean ere ubidera dezaten eskatuko diete. "Okertu bagabide, ibaita Astigarragan eta Loloan ubideratuko dute. Erdiko zatia ere, Martutenekoa alegia, ubideratzea nahi dugu. Izan ere, auzo parean du ibaita sakontasun gutxi", dio Sarroetako kide Marian Barradasek. Bestalde, Iberdrolak argi transformadorea lekuz aldatzeko edo behar bezala estaltzeko, sinadurak jasoko dituzte. "Argi transformadorea Tranbia kalean jarri zuen Iberdrolak lur azpian, eta euria egiten duen bakoitzean transformadorea busti egiten da, eta askotan geratu gara argirik gabe", azal du digu Marianek. Sinadurak biltzeko mahaia gasolindegaren parean jarriko dute larunbatean: 10:00etatik 13:00etara, eta igandean Ibasne tabernan, 11:00etatik 15:00etara.



Juan Carlos Ruiz Argazki Press

### Euskara eskolak

Astigarragako AEK-k, Arantzazuko Ama ikastolak eta Sarroeta Auzo Elkarateak gurasoentzako euskara eskolak antolatu dituzte. Eskolak otsaila bukatu eta hasiko dira, eta parte hartu nahi duenak bi ordutegi izango dituzte aukeran: 09.30etik 11.30era edo 14.30etik 16.30era. Eskolak zein egunetan emango dituzten, berriz, ikasleen nahien arabera zehaztuko dute. Izena eman nahi duenak Astigarragako AEK-ren 943 557354 telefono zenbakira deitu behar du. Eskolak ikastolan bertan izango dira, eta gurasoek seme-alabei etxeko lanekin lagun diezaieten da ekimenaren helburuetako bat.

### Kontzertua Trinketen

Hilaren 14an, larunbata "Por la sombra" taldeak kontzertua emango du Martuteneko Trinkete tabernan 23.00etan. Erreteriaro rock boskote honek 14 abesti ditu eta horietako lau maketa batean bildu ditu.



## Koordinatuak eta elkarlanean

### INTXAURRONDO HEGOA Ikastetxe publikoa

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA  
"B-D" ereduak  
Baratzategi kalea, 19  
Tel.: 943 29 70 23 • Faxa: 943 28 12 39  
E-mail: 013079aa@hezkuntza.net



### INTXAURRONDO IKASTOLA

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA  
"D" ereduak  
Zarategi pasealekua, 48  
Tel.: 943 28 51 10  
E-mail: 012367aa@hezkuntza.net



### AITOR IKASTOLA

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA  
"D" ereduak  
Konkorrenea, 5  
Tel.: 943 282132 - Faxa: 943 275625  
E-mail: aitori@euskalnet.net



### LAUAIZETA IKASTOLA BHI

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA  
"D" ereduak  
Gabriel Aresti, 165  
Tel.: 943 293005-291024  
Faxa: 943 293005  
E-mail: 0123958aa@hezkuntza.net



2 eta 16 urte  
bitarteko  
ibilbide publikoa